



ALDE ZAHARREAN EROSIZ GERO OPARIA

Alde Zaharra Dendak eta Ezpeleta elkarrekin '2.015 pintxo eta kopa bana ardo' ekimena antolatu dute etzitik igandera >6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-06-10

VIURTEA 1.456 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Baserritar jantzien erakusketan dago ikusgai Gurea aretoaren erakusgelan. I. GARCIA

OINKARIREN ESKUTIK, DANTZA ASTEA IGANDERA ARTE

VILLABONA Mahai-inguruak, hitzaldiak, dantza emanaldiak eta baserritar jantzien erakusketak osatuko dute egitaraua s

'Ikasi eta lan' ziklo berria abian, Lanbide Heziketa Institutuan

TOLOSA Lana eta ikasketak uztartzeko aukera emango du, irailetik aurrera eskainiko duten goi mailako zikloak; ostiralera arte izena emateko aukera 2

Jon Rekondo 23 urtez azpikoetan txapeldun

LEITZA Larunbat gauean jokatu zen finalen, 2 minutu eta 14 segundo atera zizkion Mugertzari 7



'Erakusketan Andinoa'-ren inaugurazioa, atzo, Atxulondo kultur etxean. I. GARCIA

Zizurkil eta Ekuadorren arteko elkartrukea

GIZARTEA Atzo hasi zen 'Ekuadorretik Zizurkilera: Kultur Trukaketarako Hamabostaldia' ekimena 3

hitza info

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.

Harpidedunentzat
%25
merkeago

**Herritar guztiek
euskaraz
egunero
irakurtzeko
aukera**

ADUNA Udalak eta HITZAK akordioa sinatu dute; doan jaso ahalko da egunkaria 3

**102 oinezko
eta 35
txirrintulari
mendi
martxetan**

BEDAIO Antolatzaileak gustura azaldu dira izan duten harrerarekin 4

Ikasketak eta lana uztartzeko aukera izango da Lanbide Heziketa Institutuan

Tolosa » 'Ikasi eta lan' ekimena irailen jarriko da martxan; goi mailako mekanikan egin daiteke izen-ematea ostiralera arte.

ERREDAKZIOA

Tolosalde Lanbide Heziketa Institutuak Ikasi eta Lan ekimena jarri du martxan. Izenak berak dioen bezala, ikasketak eta lana uztartzea da helburua.

Enpresek bultzatuta, joan den urtean sortu zen proiektu hau, eta datorren ikasturtean Tolosa ere gauzatuko da. *Ikasi eta lan* proiektuan parte hartzen dutenek, goizean ikasteko aukera izango dute, eta arratsaldean lana egin. Lan hori enpresetan egingo dute. Honenbestez, Jexux Arregi, Lanbide Heziketa Institutuko zuzendariak azaldu bezala, «ordu gutxiago izango dituzte ikasteko, eta zikloa bi urtetan egin beharrean hirutan egingo dute». Abantailen artean, azpimarratzekoa da, hiru urte horietan, kontratu iraunkorra izango dutela dagokien enpresarekin. Bestalde, soldatari dagokionean, konbenioan jartzen duenaren erdia jasoko dute ikasleek.

Ekimen hau datorren ikasturtean jarriko da martxan, baina interesatuek hil honen 13a baino lehen egin beharra daukete izen-ematea. Oraingoa lehendabiziko ikasturtea izango denez, mekanikako goi-mailako zikloa egin nahi dutenek bakarrik izango dute aukera. Eskari handiena duen arloa denez, honekin probatzea pentsatu dute Lanbide Heziketa Institutukoek. Dena den, aurrera begira, ongi baldin badao, gainontzeko zikloetara ere eskaintza zabalduko luketela.

Goi mailako ziklo hau, Batxil-



Goi mailako mekanikako zikloa egin ahal izango dute *Ikasi eta lan* programan parte hartzen dutenek. ESTI EZEIZA

goko titulua daukan edonork egin dezake. Hala, Arregiren ustetan, egokia izango litzateke, «goi mailako zenbait ikasketak duela urte batzuk egin, eta lanik aurkitu ez duten horientzab».

Enprekin elkarlanean egindako proiektua

Hemendik urte gutxira, datuen arabera, langileen beharra hazi egingo da, handiagoa baita erretireraten direnen tasa, lanean hasten direnenabaino. Hori dela eta, *Ikasi eta lan* programarekin, jende gehiagok izango du ikasketak burutzeko aukera.

Tolosako Institutuak hitzarmen batzuk sinatu ditu dagoeneko zenbait enprekin. Honela, ikasleekin adostuko dute zein zeinetara joan. Lehendabiziko hiru hilabeteetan ikastetxean bakarrik ariko dira, oinarritzeko gauzak ikasteko. Ondoren aterako dira kanpora eta lan munduan sartu.

Baldintzei dagokionean, goizetan, lau ordu egingo dituzte ikastetxean, eta arratsaldean, beste horrenbeste, lantegietan. Ikasleek ezingo dituzte aparteko orduak egin, ez eta gauzez aritu ere. «Honek ikasketetan iragina izango baiduke» dio Jexux Arregik. Bestalde,

Gabonetan eta Aste Santuan, «ikasleen oporrak» izango dituzte, udan berriz, «langileenak», hau da, hilabete bat.

Emakumeenganako bereizketa baikorra

Ekimen honetan emakumeen aldeko bereizketa baikorra egingo da. Hau da, plazen erdiak neskenzat gordeko dira. Honenbestez, eskaintza baino eskaria handiagoa bada, lehenetsuna emakumeek izango dute. Honekin lortu nahi dutena da, «normalean ikasketak horiek egitera animatzen ez diren bultzatzea».

Laburrak

Araba Euskarazera joateko autobusak antolatatu dituzte

TOLOSA ● Galtzaundi Euskara Taldeak ohitura duen bezala, hilaren 15erako, Araba Euskarazera joateko autobusak antolatatu ditu. Aurtengoan, Bastidan izango da ikastolen aldeko jaialdia. Interesa dutenek, Galtzaundiren egoitzan bertan eman dezakete izena, eta txartelak erosi.

Usabal atzeko arlanpa itxita egongo da obregatik

TOLOSA ● Usabal Kiroldegiko solariumean zenbait obra ari dira egiten. Hori dela eta, hemendik aurrera, eta lanak amaïtu arte, kiroldegiaren atzean dagoen arlanpa (sarbidea tabernara) itxita egongo da.

Jai batzordearen bilera izango da bihar iluntzean

ALBIZTUR ● Jai batzordearen bilera izango da bihar iluntzean. Bertan, abuztuko jaien egitaraua zehaztuko dute, eta honez gain, aurrera begira, ospatuko diren kultur ekitaldien inguruan mintzatu. Batzorra 19:00etan izango da, Albizturko Kultur Etxean.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 2339

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztundo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Gaueko Gurtzeak 100 urte

GIZARTEA ● Gaueko Gurtzea ezarri zela 100 urte igaro dira eta urterrena ospatu zen larunbat iluntzean, Tolosan. 300 lagun inguruk hartu zuten parte. Hauek, hainbat herrialdetatik etorri ziren.

19:30ean, Santa Maria elizaren aurrean bildu ziren eta Alde Zaharreko kaleetatik barrena prozesioa egin zuten. Ondoren, 20:00etarako berriro parrokiara bideratu ziren eta han elizkizuna ospatu zuten, Juan Maria Setien gotzaina buru zutela. ESTI EZEIZA



Jon Mujika HITZAko kudeatzailea, Arantza Aburuza Adunako alkatea eta Iñaki Aristeta zinegotzia, hitzarmena sinatzen. Eskubikoan, Mujika eta Aristeta, Uztartzaren ondoan dagoen buzoian. I. GARCIA

Herritar guztiek euskaraz egunero irakurtzeko aukera izango dute

Aduna » Udalak eta HITZAk akordioa sinatu dute eta urte amaierara arte adunarrek egunkaria dohainik jasoko dute.

IMANOL GARCIA

Adunako Udalak eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAk akordioa sinatu dute eskualdeko euskarazko egunkaria herritar guztiek jaso

ahal izateko. Horrela, urte amaiera arte doan jasoko dute herritarrek gaurtik hasita. Udalak urtero eman duen biztanleko hiru euroko laguntzaz gain, banaketa ahalbidetzeko laguntza gehiago emango du. «Euskara bultzatzeko helburuarekin» egin dute ahalegin hori Udaletik. «Euskarazko egunkari bakarra da eskualdean eta, bestalde, Udalak eman behar dituen berriak eta oharak bideratzeko balioko du, paper gutxiago gastatuz».

HITZA banatzeko arazoak izan dira orain arte Adunan. 125 etxebizitza inguru daude eta guztira zazpi okindegik banatzen dute herrian ogia, baina egunkaria ez zen banatzen etxeetara. Euskarazko egunkariaren 30 ale inguru Uztartzeta tabernan uzten ziren eta bertatik herritarrek hartzen zituzten.

Buzoiak

Bi modu izango dira HITZA jasotzeko. Alde batetik, lau okinek ba-

natuko dute: Opil, Ogi-Goxo, Labezain eta Panifikadora Hernani. Ogia okin horietatik jasotzen ez dutenentzat sei buzoi jarri dira herrian zehar: Amundo, Zubi Txiki (Lardi auzoan), Elutx, Uztartzeta (herrigunearen sarrerako biribilgunean), Olazabal eta Lizarreka lantegiaren ondoan. Buzoiaren HITZaren pegatina jarrita dago eta astartetik igandera bitartean bertan izango dira jasotzeko aleak.

Urte honen amaieran Adunako

«Euskara bultzatzeko helburuarekin» sinatu du Adunako Udalak HITZAren akordioa

Sei buzoi jarri dira herrian, okinen bitartez jasoko ez dutenek egunkaria izateko

herritarrei deituko zaie harpidetun ordaintzaile egin nahi duten galdetzeko. Bien bitartean, Adunako herritarrek egunero euskaraz eskualdeko albisteak jasotzeko aukera izango dute, Adunako Udalaren eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN ahalegin bateratuarekin.

Ekuadorretik gertuago

Zizurkil » Udalak Ekuadorrekin kultur trukaketa bultzatzeko ziklo berri bat antolatatu du egun hauetarako.

ERREDAKZIOA

Zizurkileko Udalak atzo hasi zen jarduera zikloa antolatatu du Ekuador eta Zizurkil artean kultur trukaketa bultzatzeko, *Ekuadorretik Zizurkilera: Kultur Trukaketarako Hamabostaldia* izenburupean. Ekuadorren jaio ziren pertsona ugari dago herrian bizitzen eta Udalak integrazioaren aldeko apostu garbia egin nahi du ekimen honekin.

Maria Angeles Lazkano, Zizurkilgo alkateak komunitate ekuadortarrekin izandako bilera baten ondorioz jaio da proiektu hau. Zizurkilgo eta inguruko beste herri batzuetako ekuadortarrak astean behin biltzen baitira Pedro Mari Otaño ikastetxean, bertan, beraien lurraldean ohiturazkoa den boleibol partidak antolatzen dituzte.

Bilera honetan, alkateak bi herralde arteko kultur trukaketa egitearen eskaintza adierazi zien, batetik ekuadortarrek herriko eki-



Erakusketaren inaugurazioaren une bat, atzo Atxulondon. I. GARCIA

taldien antolakuntzan parte har dezaten eta bestetik herrian bertan herrialde hartako kulturarekin erlazionatutako jarduerak antolatzeko.

Atzo hasi ziren ekitaldiak. *Erakusketak Andinoa* erakusketaren inaugurazioa egin zuten Atxulondo kultur etxean. Bisitariak lurralde hartako kultur ezaugarri desberdinak ezagutzeko aukera izango du.

Ostiralean, 19:30ean eta Atxulondo kultur etxean ere, Tania Hermida ekuadortararen *Que tan lejos* izeneko filma emango dute. Etorrinen aldeko lana egiten

duen Adiskidetuak elkarteak, hilaren 20an, 19:30ean, Atxulondon, *Tu cárcel* izeneko dokumentala emango du. Bertan Euskal Herriko herrialde desberdinetara etorri diren familia ekuadortar batzuen esperientzia kontatzen zaigu.

Hilaren 21ean Ecua-bolei partiduak jokatu dituzte, lurralde latinoamerikar hartan ohitura asko duen kirola. Pedro Mari Otaño ikastetxean izango dira 11:00etatik aurrera. Jokatu ostean indarrak hartzeko, 13:00etan Atxulondon ekuadorreko janaria dastatzeko aukera eskainiko dute, bazkaria izango baita.

Erniobeakoak areto futboleko txapelkun

Villabona » Euskadiko Txapelketa eskuratu dute Bizkaiako txapelkunaren aurka 4-2 irabazi eta gero, partida gogor batean.

ERREDAKZIOA

Erniobearen Institutuko areto futboleko infantil taldeak Euskadiko Txapelketa lortu du, denboraldi bikaina eginez. Gipuzkoako Txapelketa Anoetako Ikastolaren aurka eskuratu eta gero, Donostian jo-

katu dituzte Euskadiko Txapelketa partidak. Nafarroako txapelkunari 10-1 eta Arabako txapelkunari 8-2 irabazi ostean, Bizkaiako txapelkunaren aurka jokatu zuten azken partida, 4-2 irabaziz, partida gogor batean.

Argazkian, zutik, ezkerretik eskubira: Martin Castellano, Andoni Mosqueira, Alvaro Amado, Iker Hinojosa, Ivan Alves eta Alain Martin (entrenatzailea). Makurtuta, ezkerretik eskubira: Jon Amiama, Iker Beristain, Daniel Diaz eta Steven Balardi.



Erniobearen Institutuko infantil mailako taldea. HITZA

102 oinezkok eta 35 txirrindularik hartu dute parte mendi martxetan

Bedaio » Kultur Asteburuko azken ekitaldiak herenegungoak izan ziren, eta balantzea «positiboa» izan da.

ERREDAKZIOA

Herenegun Bedaio II. Mendi Martxa burutu zuten 102 oinezko mendigoizalek. Honekin batera, I. Mendi Bizikleta ibilaldia egitera ere 35 lagun animatu ziren. Ekitaldi hauek izan ziren aurtengo Bedaio Kultur Asteburuko azkenekoak. Abiapuntutik atera ziren guztiak kafe beroa hartzeko aukera izan zuten, Artubi elkarte antolatzaileen eskutik, ondoren, txirrindulariek eta oinezkoek ere 25 kilometro egin behar baitzituzten.

Antolakuntzak «balantze positiboa» egin zuen «eguraldia lagun ez baina parte-hartzaile kopuru polita hurbildu baitzen. Bedaio jendea gustura datorrela ere ohartu ziren hainbat komentario entzun eta gero: «Bedaio gauzak zuzen egiten dira eta jendea animatu egiten da».

07:00etan biltzen hasi ziren mendizaleak Bedaio pilotalekuan: antolatzaileek «eguraldia ez zela lagun izan» adierazi dute, «baina animatu egin zen jendea». Zaparrada bortitzek eta lainoak egun zatarra izango zenaren itxura ematen zuten, baina ez zen horrela gertatu. «Mendizaleek hasierako pausoak eman ahala, zerua lainoz garbitzen hasi zen eta curia egiteari utzi zion».



Oinezkoak indarrak hartzen Zarateen. ARTUBI ELKARTEA



Oinezkoak, azken anoagunean atsedean pixka bat hartzen. ARTUBI ELKARTEA



35 txirrindulariek bizikleta garbitu ahal izan zuten han bertan. ARTUBI ELKARTEA

Ehun mendizaletik gora abiatu ziren, ondo ekipaturik, «aterki eta guzti, nahiz eta ondoren erabili ez». Ibilbidea «gogorra» izan zen hasiera, aurreko egun eta asteetako curiak sorturiko lokatz pila baitzegoen, «baina gogotsu egin zuten» Artubiko elkarteok markaturiko bidea. Lehenengoak 12:15ak aldera iritsi ziren Artubira, baina gehienak, espero bezala, 14:30ean hasi ziren iristen. Azkenak 15:30a kaldera iritsi ziren.

Txirrindularien ibilbidean lohia 08:30ean 35 txirrindularik ekin zioten aurreko lehen aldiz antolatutako mendi bizikletari. «Eguraldiari muzin eginez, mendian egonikaldapabatzuk gogorrak suertatu zitzaizkien eta lokatzak are eta gogorrago bilakatu zuen ibilbidea». Hala ere, txirrindularien kezku bakarra lokatza izan zen, ibilbidea «gogorra baina oso polita» izan zela esan dute parte-hartzaileek. «Gogortasun eta baldintza horietan gozatu egin genuen».

Bukaeran, bizikleta garbitzeko Artubikoek aukera ere jarri zuten, lan honetarako jendea bilatuz. Parte-hartzaileek, nola ez, esker onez hartu zuten eskaintza, «kilokala lokatza pilotuta baitzuten bizikletetan eta horiek kotxean sartuz gero»... Azkarren ibili zirenek hiru ordutan egin zuten buelta, kalkulatu bezala.

Bukaeran, bai mendizale zein txirrindulariek, txorixo, haragi egosi, gazta, salda beroa, odolkia eta abar hartzeko aukera ere izan zuten. Indarberritzeko behar izan

zuten. Ondoren, laguntzaile desberdinek emandako opariak zozketatu zituzten: mendiko materiala, edariak eta abar. Honela, «batzuk egun pasa politaz aparte, opari eta guzti joan ziren etxera». Baten batek bedaiotarren «antolakuntza maila ona» goraiatu zuen, «paraje ederrez gozatzeko aukera» izan zutela ere ezin ahaztuz. Guztira 25 bat bedaiotar ibili dira antolakuntzan.

«Balantze positiboa»

Antolatzaileek parte-hartzaile guztiei eskerrak eman nahi izan die, «agertu zirelako eta disfrutatzeko aukera izan zutelako. Eskerrak ere laguntzen izan ziren bedaiotar guztioi, markaketa, postula eta helmugan izan ziren guztiei, denon laguntzarik gabe ezin baita horrelako egun bat borobildu».

Ezin ahaztu lagungarri izan diren enpresa guztiak: Aralar Kiroklak, Shanti kirolak, Tolosako Udala, Begiristari bizikletak, Arsuaga, Bodegon Bentaldea, HITZA, Comercial Itxasi, Ilorreta Artzai gazta, Larrañeta Berri artzai gazta, Txiki Jai bakailuak, Artubi Iturgintza, Zazpitu Iturgintza, Melkalan, Eiten Aroztegia, Ogi Berri, Iñaki Balerdi harategia, Iñaki Sukaldea, Tolosako Gurutze gorria, Kopi bat, Insalus, Zabala kafeak eta Graficas Ibarra Inprimategia.

Artubi elkartetik adierazi dute, mendi martxako argazkiak ondorengo egunetan www.bedaio.com webgunean jarriko dituztela.

Kultur Asteburuarekin

«poziko»

Artubi elkarteok kideek aurtengo Kultur Asteburuak arrakasta izan duela adierazi dute eta honen aurrean «poziko» daude. Gainera, «jendearen parte-hartzea oso ona izan da eta interes handia erakutsi dute».

Zaldi raid lasterketarako ikastaroa ere arrakastatsua izan zen, larunbatean 40 lagun bildu baitziren. Zalatza asko argituzko balio izan zuten honek, eta noski, irailaren 28ko zaldi raid-erako.

Ekain beltza
berriarekin

eleBERRI beltzAekin



Utzi ezinik
irakurtzeko modukoak

Lau libururik:
ekainak 7, 14, 21 eta 28



+
2,9€



OHARRA: Irteerak bukatu arteko eskaintza

euskarazko
zure-azoka

berehala
gatoz

Tolosako
Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzordeak, 2008.eko maiatzaren 26an hartutako erabakiaren bidez, hasierako onspena eman zion honako proiektu honi:

T.6 "San Frantzisko eraikin publikoak" eremuko Bame Erreformatarako Plan Berezia.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HAMABOST LANEGUN, (Irteerak honen arden argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendeaurrean jarrita egongo da. Lurzoru Legearen 1976ko Textu Bateratuaren 43. eta 41. artikuluek, Hirigintza Planeamendu Arautegiko 147.ak eta Eusko Legebiltzarren Plangintza Tresnen eta Hirigintza Gestioaren tramitazioari buruzko ekainaren 30eko 17/94 Legearen 6.ak xedatuaren arabera.

Irteerak Gupuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon, Tolosaldeko Hitza eta Berria argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Udaletxeko Hirigintza Bulegoetan (Plaza Zaharra, 6-B) agerian egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak alkateari zuzendutako behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2008eko ekainaren 3an.

ALKATEA.

Oinkarik lehendabiziko Dantza Astea antolatu du

Villabona » Hitzaldia, dantza emanaldia, mahai-ingurua eta baserritar jantzien erakusketa izango dira hilaren 15era arte.

IMANOL GARCIA

Oinkari dantza taldeak Dantza Astea 2008 antolatu du. Eneko Artega Oinkariko arduradunak azaltzen duenez, «Villabonan azkenean urtetan dantzak indarra hartu du. Egun 250 dantzari inguru daude Oinkarin. Hori guztia ikusita, Dantza Astea antolatzea pentsatu genuen».

Mahai-ingurua, hitzaldia, dantza emanaldia eta baserritar jantzien erakusketa dira antolatutakoak. Mahai-ingurua gaur bertan egingo dute, Gurea aretoan, 20:00etan. *Euskal dantzak lehen eta orain* izango da gaia eta bost hizlari izango dira bertan, euskal dantzen ikuspuntu ezberdinak plazaratzeko: Edu Muruamendiaraz (Aukeran dantza konpainia; Donostia); Alain Maia (Ereintza dantza taldea eta Kukai dantza konpainia; Errenteria-Oregeta); Jokin Otamendi (Arkaiz dantza taldea-Argia dantza taldea; Añorga-Donostia); Oier Araolaza (Kezka dantza taldea; Eibar); eta Aritz Salamanca (Goizaldi dantza taldea; Donostia). Moderatzaile lanean Jaime Otamendi kazetaria aritko da.

Etzi hitzaldia antolatu dute, Gurea aretoan eta 20:00etan. Ramon Garcia baserritar jantziei buruz



Baserritar jantzien erakusketan ikusgai dagoen adibideetako bat. I. GARCIA

ariko da eta gazteleraz egingo du hitzaldia.

Larunbatean, hilak 14, Oinkariko gaztetxoek (12-15 urte bitartean) *Iraganaren geroa* dantza emanaldia egingo dute Olaederra kiroldegian, 22:30ean. Sarrerak aurretik 5 euro balioko ditu eta herriko okindegietan daude salgai. Egunean bertan 7 euro balioko dute. 57 dantzarik parte hartuko

dute, azken bi urteetan gogo biziz prestatu duten emanaldia eta larunbatean estreinatuko dutena. Aurkezlea eta musikariak, Loatza musika eskolako ikasleak, ere gaztetxoak izango dira.

Azkenik, erakusketa atzotz bertan ireki zen eta hilaren 15era arte egongo da Gurea aretoko erakusketa gelan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 22:00etara.

Ugaitz Artolak denboraldiko lehen garaipena lortu du Ataungo proban

ERREDAKZIOA

Ugaitz Artola (Azpiru-Ugarte) billabonatar txiririndulariak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen herenegun Ataunen Euskaldun Torneorako puntuagarria den proban. Bere atzetik heldu zen Fabricio Ferrari, eta hain zuzen ere, biak bakarrik iritsi ziren helmugara. Lasterketa Larraitzen erabaki zen, izan ere, puntu horretan minutu bat eta 20 segundoko aldea atera zioten Egoitz Murgoiatik eta Ugaitz Artolak hasierako taldeari.

Jeitsieran, ordea, Artolak alde egin zuen, Murgoiatik atzean utziz. Hala, Ferraririk harrapatu osten, helmugara biak bakarrik iritsi ziren.

berriak 5 urte

Parte-hartzaileak

- Mokaua
- Beobide eta Aukerako dantzariak
- Anari
- Ruper Oradrika
- Aitor Mandiluze
- Xabi Páyo
- Asier Otamendi
- Xabier Silveira
- Amets Arzallus
- Harkaitz Cano
- Maitalen Lujanbio
- Kirmen Unibe
- Kike Amonariz
- Iñaki Serrano

berria

luzatu bostekoa

EKITALDI NAGUSIA

Ekainak 21, larunbata, 19:30ean
Donostiako Kursaalako Auditoriumean

Zatoz gurekin ospatzera!

SARRERA DOAN • Sarrerak eskuratzeko: 943-30 40 30 • www.berria.info
Dengorezkoa da sarrerik aurretik eskuratu ezinaren irabazpena.

max+

cuenta | kontua

% U.T.B.

ERABILGARRITASUNAREKIN KOMISIORIK GABE

“Uda honetan, tipoari dagokionez, nirea”

Abuztuaren 31 arte

Gehienezko zenbatekoa 10.000€

Interes-tasa %5 U.T.B. (%4,889 nominala).
Ekainaren 1etik abuztuaren 31 arteko irekieretarako.
Diru-sarrerak eta itzulketak egiteko gutxieneko zenbatekoa: 2.000€.
Ohiko ordainsaria: %3,25 U.T.B. (%3,203 nominala).
Helbideratzeak ez ditu onartzen.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

2.015 pintxo eta ardo kopa bana sarituko dituzte dendariak

Tolosa » Alde Zaharra Dendak eta Ezpeleta ostalaritza elkarteek antolatu dute ekimena Udalarekin batera.

Iragan urtean izandako «arrakasta» kontuan hartuta, aurtengo jaiak ez da antolatzen den azkena izango, Jon Aldazabal (EAJ) udal zinegotziaren esanetan.

Erosketa saridunak

Bi elkarteek eta Udalak elkarlanean aurkeztutako *2.015 pintxo eta kopa bana ardo* ekimenaren arabera, etzitik igandera Alde Zaharra Dendak elkarteak osatzen duten establezimenduetan erosten duenak, txartela jasoko du opari bezala. Sariduna suertatuz gero, pintxo bat eta ardo kopa bat edateko aukera izango du kontsumitzaileak



Tolosako Alde Zaharreko dendari eta ostalariak Jon Aldazabal udal ordezkariarekin. ASIER IMAZ

ASIER IMAZ

Tolosako Plaza Berrian, Ikatza tabernaren atarian, *2.015 pintxo eta kopa bana ardo*-ren bigarren edizioa aurkeztu dute Alde Zaharra Dendak merkatari elkarteak, Ezpeleta Tolosako Alde Zaharreko ostalarien elkarteak eta Tolosako Udalak.

Ezpeleta elkarteak ostalaritza establezimendu batean, ostiraletik igandera.

«Iazko arrakasta»

Ekimenaren bigarren edizioa dendari eta ostalaritza elkarteak kideek aurkeztu dute, Jon Aldazabal udal ordezkariarekin batera. Zine-

gotziak «iragan urteko arrakasta» azpimarratu nahi izan du Udalaren «bultzadarekin» batera. Aurtengo joan den urteko arrakasta gainditzea espero duela aipatu du azkenik. Ezpeleta elkartetik eskerrik eman nahi izan dizkie Alde Zaharra Dendak elkarteak kideei, eurekin kontatu dutelako.

Dendari elkarteak bere aldetik herritarrak gonbidatu nahi izan ditu Tolosan etzi hasi eta igandean amaituko den jaira. Lau egunetan ekimena martxan egongo bada ere Alde Zaharrean, larunbata izango da *2.015 pintxo eta kopa bana ardo* jaiaren egun nagusia antolatzailearen esanetan.

Balorazio «oso positiboa»

Ibarra » Alurr dantza taldeak Dantza eta Mutxikoaren Egunaren inguruko balorazio «oso positiboa» egin du.



Dantza eta Mutxikoaren Eguna antolatu zuen Alurr-ek. ASIER IMAZ

A. IMAZ

Alurr dantza taldeak maiatzaren azken asteburuan Dantza eta Mutxikoaren Eguna antolatu zuen Ibarrian. Bertan dantzari ugari bildu ziren eta Alurrek ekimenaren inguruko balorazioa plazaratu du; «mahiz eta eguraldiak ez lagundu, gure aldetik oso positibotzat jotzen dugu eguna. Dantzarien partaidetza espero zena izan zen, 350 ume inguru izan ziren bertan».

«Eskerrak guzti guztiei»

Aluraren esanetan, antolakuntza «oso ona» izan zen. Eguraldiaren eraginez azken orduan aldaketak egin ziren baina «aita, ama, lagunak, irakasle eta guztien partaidetza oso zabala izen eta horri esker

festa aurrera atera ahal izan genueen». Bestalde, «Iparraldeko taldearen partaidetza» zoriandu eta azpimarratu nahi izan du Alurerek.

Hauetaz guztietatik eskerrak eman nahi izan dizkie dantza taldetik,

baina hauekin batera, Ibarriko Udala, Ibarriko Kutxa, Ibarriko Euskadiko Kutxa, Insalus, Tolosako Eroski, Viña La Guardia eta Opil Okindegia ere aipatu dituzte, «nor bait aipatzea ahaztu bazaigu, barkamenak» eskatuz.



Euskal Herriko kantu txapelketaren finalean egongo diren ordezkariak. HITZA

Hiru lizartzar eta tolosar bat kantuaren gorengo mailan

A. IMAZ

Euskal Herriko kantu txapelketaren finalean eskualdeko ordezkariak egongo dira ekainaren 15ean, «nor bait aipatzea ahaztu bazaigu, barkamenak» eskatuz.

Arantza Goikoetxeandia lizartzarra abeslari bezala aurkeztuko dira finalean. Taldeko beste bi kide lizartzarrek Garazi Esnaola, pianoarekin, eta Olatz Goikoetxeandia, akordeoiarekin, izango dira.

Hilberria

ALAITZ ZUDAIRE SANTOS
(ORERETA IKASTOLAko ikaslea)



Atzo hil zen istripuz, Erreterian

«Zergatik galdu itxaropen beriz ikusleko zergatik galdu itxaropen beriz elkartzea...»

ORERETA IKASTOLAko ikasle, guraso eta langileok familiaren saminarekin bat egiten dugu, eta Fatimako Andra Mariaren parrokian, gaur asteartea, 19:00etan ospatuko den hileta elizkizunean parte hartzea gonbidatzen zaituztegu.

ERRETERIAN
2008ko ekainaren 10ean

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

Aralar eskolako ikasleen kontzertuan jende ugari

Leitza » Ostiralean izan zen kontzertua zinean, 19:00etan eta 300 lagun inguru bildu ziren herriko ikasleak entzuteko asmoz.

N. GARZIA

Ostiralean Leitza Aralar Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten zinean, 19:00etatik aurrera. Zinema erabat bete zen, eta 180 sarrera saldu zituzten arren, asko izan ziren dohainik sartu zirenak, umeek ez baitzuten ordaintzen. Orohar, 300 lagun inguru bildu ziren.

Jose Javier Irigoien musika eskolako zuzendariak azaldu duenez, «hau azkenaurreko kontzertua izan da», izan ere Goizueta eskainiko dute azkeneko kontzer-

tua, ekainaren 14ean, datorren larunbatean.

Orokorrean ikasle guztiak Leitzaokoak ziren arren, fanfarrea jo zutenak Araritz-Beteluko ikasleak izan ziren.

Abesti eskaintza oparoa

Estilo ezberdinetako 20 abesti eskaini zituzten, eta tartean, Oskorriren, Bob Dylanen, Metallicaren edo Benito Lertxundiren abestiak eskaini zituzten. Orokorrean gehienak gaur egungoak izan ziren, eta oso gutxi klasikoak, Granadosen *Vals poetikoa*, esaterako.

Haur hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailako *Lehoi baten bila noa* abestiarekin hasi zen kontzertua eta ikasleek pianoa, gitarra, teklatua, batera, baxua, silbota, atabala eta perkusioa jo zituzten. Bi ordu iraun zuen emanaldiak.

» KONTZERTUAN ESKAINITAKO ABESTIAK

- **Ahotsak.** *Lehoi baten bila noa.*
- **Pianoa eta Bibolina.** *Memory*, (Andrew Lloyd Webber).
- **Zeharkako txirula.** *Petit Matin* (Etienne Perruchon) eta *Blowing in the wind* (Bob Dylan).
- **Akordeoa.** *Gatu eta xagu* (Oskorri).
- **Pianoa.** *Oh Susana.*
- **Saxoa eta pianoa.** *The policeman's song* (Sullivan).
- **Trikitixa.** *Barañain* (Alaitz eta Maider).
- **Pianoa.** *Just an aside* (Christopher Norton).

- **Gitarra.** *Andante* (Vivaldi), *The keys of Canterbury*, *Nothing else matters* (Metallica), *Hirugarren estudioa* (Sor), *Laztana* (Latzen).
- **Txistua.** *Jokatxoak* (Alex Iribar) eta *Maritxu Bariazioak* (herri kantata).
- **Pianoa.** *Vals poetikoa*, 1. zkia (Granados).
- **Akordeoa.** *Aintzinako Minue* (Luis Aranburu).
- **Gitarra.** *Erribera* (Benito Lertxundi).
- **Perkusioa.** *Duet* (Garwood Waley).



Haur hezkuntzakoak *Lehoi baten bila noa* abesten. N. GARZIA



Aintzane Oiarzabal, Amaia Ezkurdia eta Itxaso Morato. N. GARZIA



Jon Rekondo Leitzaoko Amazabal Pilotalekuan egindako kanporaketan. N. GARZIA

Jon Rekondok Bakarkako Urrezko Aizkolarien finala irabazi du bere mailan

Leitza » Leitza 2 minutu eta 14 segundo atera zizkion Mugertzari, eta 18 minutu eta 34 segundotan amaitu zuen.

bajuxeagoa du». Rekondok apustua jokatu zuen negu honetan eta berarentzat hori esperientzi handia izan dela dio Saralegik. «Egun hartan gaizki atera zitzaion baina esperientziak garagarria hartu zuen. Aurten oso ongi ikusi dut gora dihoan aizkolaria dela iruditzen zaib».

Egin beharreko lanak

Lehendabizi 45 ontzako bat ebaki behar zuten golpeka, Mugertzak 36 golpe behar izan zituen eta Rekondok 32. Erlojuan kontrako saioa hauek biak batera jokatu zuten eta Mugertzak 45 ontzako 40 segundutan ebaki zuen eta Rekondok 42 segundutan. Gero elkarren kontra 45 ontzako bat zuten, Mugertzak minutu bat eta 20 segundo pasatu zituen eta Rekondok minutu bat eta 16 segundo. «Hor Rekondok 6 segundoko abantaila besterik ez zeramakien». Gero 60 on-

tzako bat zeukaten, etzanda. Mugertzak 2 minutu eta 4 segundo pasa zituen, eta Rekondok minutu bat eta 52 segundo. «Hor ere bazueuden 18 segundo Rekondoren alde, baina ez zen beste munduko alde».

Amaitzeko bi 45 ontzako, bi kanardiko eta bi 60 ontzako zeukaten eta horiek ebakitzen Mugertzak 16 minutu eta 8 segundo behar izan zituen eta Jon Rekondok, berriz, 14 minutu eta 12 segundotan egin zuen lana.

Guztira Rekondok 18 minutu eta 34 segundo behar izan zituen eta Mugertzak 20 minutu eta 48 segundo. «Azkeneko saio honetan erritmo oso bizia jarri zuen Jon Rekondok eta aurkariak ez zuen izan jarraitzeko modurik. Bigarren egurrean, baina, buruarekin ezezkua egiten zion erakustunari, erritmoa ezin zuela jarraitu adieraziz».


NAIARA GARZIA

Larunbat gauean jokatuakoa finalen Rekondok 23 urtetik behar koen txapela eskuratu zuen. Orohar 3 final jokatu zituzten, elite mailakoa, 23 urtetik behar koa eta 18 urtetik behar koa. Lehenengoan Nazabalek irabazi zuen, bigarrengoan Rekondok eta azkenekoan Erasunek.

Gabriel Saralegi herri kirol jaialdien antolatzaileak azaldu duenez, «jende ugari bildu zen Azpeitiako pilotalekuan, gainera tartean gazte asko ziren, ez da oso ohikoa eta azpimarratzekoa da». Denak nahasita jokatu zuten, «serie ezberdinak direlako». Hasiera batean batzuk hasi ziren eta gero besteak sartu zituzten. Horrelakoetan azkeneko beti maila nagusikoek bukatzen dute, lehendabizi gazteek eta bigarren 23 urtetik behar koek.

Rekondo, irabazle

Erdi lanak pasa arte nahiko pertsu joan ziren Rekondo eta Mugertzak, 3 proba pasatokoan Rekondok 6 segundo bakarrik ateratzen baitzizkion Mugertzari. «Rekondo oso ongi ikusi nuen», dio Saralegik, «animatua, irrifartsu, bere buruarengan konfidantzarekin. Mugertzak ere ongi aritu zen, baina maila



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



21°
15°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EURIA
EURIA
21°
15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** Kontsumo txikiko bonbilen banaketa egingo dute Berazubiko plazan, 10:00etatik 12:00etara. Aste Berdearen baitan kokatzen da.
- **Anoeta.** Udaleku irekietarako begiraleak behar dira. 18 urtetik aurrera izan beharko dira izena emateko. Udaletxean egin ahal da.
- **Ibarra.** Ibarra Udalak 2008ko San Bartolome jaietako egitarauarako bozeto lehiaketarako lanak hilaren 20a baino lehen Benito Izagirre kultur etxean entregatu behar dira. Gaia librea izango da. Ibarra bizi edo eta ikasten duten haur guztiak aurkeztu ahal izango dute.



Herria ezagutzuz, giro bikainean

ZIZURKIL • Mendi ibilaldia egin zuten herenegun Zizurkil, herriko txoko ezezagunak bisitatzeko asmoz. Ez ziren elkartu lagun gehiegi. Justu atera aurretik zaparrada handia bota zuen eta horrek familia bat baino

gehiago atzera botako zuela uste dute antolatzaileek. Hala eta guztiz ere, joan zirenek «primeran pasatu genuen, eguraldi bikaina eta bazter politak ikusi. Baita Zentroan egin genuen bazkarian ere». JOXIN AZKUE

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatuko elkarteak Urkiolara irteera antolatu du hilaren 13rako, San Antonio egunerako. Izen-ematea, elkartean bertan 27 eurotan (ez bazkideek, 30 euro).


■ **Tolosa.** Uztailaren 6an egingo den Jubilatuen Festarako izen-ematea egin daiteke Harizpe eta Iturriza jubilatuko elkarrean. 65 urte izan eta Tolosan bizi direnentzat da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Zorionak!

Arkaitz eta Nagore Balda (Alegia). Arkaitzek gaur 6 urte, Nagorek bihar 3 urte. Zorionak eta muxu bana familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAREN egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAREN egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



Zorionak!

Gaizka Mujika (Abaltzisketa). Gaur 8 urte. Zorionak, muxu asko eta ondo pasa denon partetik.



Urte askoan!

Manex Begiristain. Urtebete. Zorionak etxekoan eta bereziki Maddiren partetik.

oniatiko b.h. institutua

zuazela-larrafia

KALITATEA
HEZKUNTZAN



AURRE MATRIKULAZIO EPEA: **EKAINAREN 2tik 13ra**

Informazioa: telf.: 943782150 / www.onati.net / onatikobhi@goiieskola.net

ATE IREKIAK: ekainak 3, 18:00etan
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Natur ingurunean gorputz eta kirol ekintzen gidaritza: 1400 ORDU (urtebete)
- Mekanizazioa: 2000 ordu
- Linea eroanbideen eta makinaren mantenu elektromekanikoa: 2000 ORDU